

# ALDAKETAREN ERRONKA

Familia osoarentzako jokia

NILSAko Heziketa Programa



## 01. Sarrera

Egungo egoera dela eta, NILSAko heziketa taldetik, Klima Aldaketari buruzko bitxikeriak ikasteko jarduera hau luzatu nahi izan dizuegu familia guztiei. Erronka honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, Klima Aldaketari buruzko galdera ezberdinei erantzun beharko diozue, Lur berrian bizi modu iraunkor bat eskuratu ahal izateko.

## 01. Jokoaren Deskribapena

ADAKETAREN ERRONKA, familia osoari, Klima aldaketari buruzko gai ezberdinak erakutsiko dizkizuen joko da.

Joko honen bitartez, partehartzaile guztiek Klima Aldaketaren garrantzia ezagutzea bilatzen da. Erronka, jarduera eta joko ezberdinak gaindituz, jokalariek, Klima Aldaketaren jatorri, ondorio eta konponbideei buruz ezagutza handiagoa lortuko dute. Ingurumenaren ulermen konplexuan barneratuko dira Klima Aldaketa fenomenoak elkarrekin aztertuz. Ingurumen etikaren garapena erraztea du helburu, ekitate eta elkartasun ikuspuntu batetik, arlo guztietan, baliabideen erabilera arrazionala eta solidarioan oinarritutako praktika eta bizimodu jasangarriak errazteko,

Talde bakoitzak beharrezkoa izango duen **materiala** ondorengoa da:

- I Eranskina: 1. Dinamika
- II Eranskina: 2. Dinamika
- III Eranskina: 3. Dinamika
- IV Eranskina: Joko Taula
- V Eranskina: Txartelak
- VI Eranskina: Konpromezua

## 02. Jokoaren Garapena

Atal honetan jokoaren zatiak azaldu egiten dira.  
Ondo pasa!

- **1. Dinamika: Jatorri Naturalak edo Artifizialak**

Diapositiba honetan (I Eranskina), Klima Aldaketaren jatorri naturalak eta artifizialak irudikatzen dira. Partehartzaileek, argazki bakoitza jatorri naturala edo artifiziala adierazten duen erabaki beharko dute.

Ezer baino lehen, galderatxo batzuk planteatu nahi dizkizuegu sarrera moduan:

Zeintzuk dira Klima Aldaketaren jatorriak?

Uste duzu gizakiak zerikusia duela Klima Aldaketarekin?

Ze egoerak uste duzu gizakiak sortu dituela?

Ze irudi uste duzu modu natural matean eman direla?

Gure egunerokotasuneko ekintzek Klima Aldaketan eragiten dute?

- **2. Dinamika 2: Zertan eragiten digu Klima Aldaketak?**

Kasu honetan, diapositibak ( II Eranskina) Klima Aldaketak, naturan eta gizakian sortu ditzakeen ondorio ezberdinak adierazten dituzten irudiak aurkezten ditu. Begira itzazu irudiak eta esan zeintzuk adierazten duten naturan, gizakian edota bietan eragiten duten ondorioak.

Hausnartzeko galdera batzuk:

Ze ondori ditu Klima Aldaketak?

Munduko pertsona guztiek Klima Aldaketaren ondorioak modu berean jasango dutela?  
Zergatik?

Ze beste ingurumen arazo daude Klima Aldaketarekin erlazionaturik?

Uste ahal duzu naturatik bereiz ahalko ginatekeela eta Klima Aldaketaren ondorioetatik libratu ahalko ginatekeela?

- **3. Dinamika 3: Zer egin dezakegu?**

Atal honek (III. Eranskina) behatu eta aztertu beharko dituzun irudi batzuk aurkezten ditu, Klima Aldaketa murriztu dadin hartu ditzakegun prebentzio eta arintze neurriei buruz hausnartzeko.

Hurrengo galderei buruz hausnartu dezakezue:

Ze ekintzak egin daitezke Klima Aldaketari aurre egiteko?

Zeintzuk dira arazoaren aurrean soluzio garrantzitsuenak?


Nortzuk uste duzu direla Kima Aldaketa aurrean jokatu behar dutenak?  
Zer egin dezakegu banakako lan bezala Klima Aldaketa ekiditeko?  
Klima Aldaketa gelditu daiteke?  
Klima Aldaketa geldiarazteak gure bizi kalitatea murriztu dezake?

- **Taula Jokoa**

Joko honetan jokalariek 4 taldeetan banatuko dira eta Klima Aldaketari buruzko Tribial galdera batzuei erantzuna eman beharko diote. Talde bakoitzak kolore bateko 4 fitxa izango ditu. Denek fitxa horiek taula (1. Irudia) erdian kokatu beharko dituzte, Lur planeta dagoen tokian. Fitxa bakoitza lauki batean. Tribial galdera bat asmatu eta gero jokalaria bakoitzak pauso bat mugitu ahal du bere fitxetako bat. Fitxa guztiak bertikalki eta horizontalki mugitu ahal dira bakarrik, ezingo dira diagonalki mugitu.

Bestalde, itsasoko laukitxoetan 4 fitxa ezberdin jarriko dira ipar, hego eki eta mendebaldean bakoitza. Fitxa hauek, jokalaria bakoitzak bere fitxak mugitzera fitxa berezi hau mugitu ahal izango dute eta lauki berean elkartzea lortzen badu, fitxa hori zuzenean lur ertzetara pasa ahal du zuzenean. Bertan modu jasangarri batean bizi ahal du dira.

Jokoaren helburua, Lur Berrira lehenbailehen heltzea izango da, bertan gizakia Lur plantarekin armonian eta modu iraunkor batean bizitzeko aukera izango du.



1. **Irudia.** Aldaketaren Erronka Joko Taula.

- **Konpromezua**

Amaitzeko, VI. Eranskinen, talde guztiak hausnartzeko galdera batzuk aurkezten dira alde batetik, eta bestetik, partehartzaile bakoitzak jokoaren bitartez Klima Aldaketa ekiditeko ikasi dituen akzio ezberdinak egiten konprometitzeko ataltxo bat ikusiko duzue. Jar dezagun gure hondar alea!

## 03. Gomendioak

Gehiago jakiteko:

- <https://www.thezoneofhope.com/>
- <https://www.cerebriti.com/juegos-de-cambio+clim%C3%A1tico/tag/mas-recientes/>
- <https://www.juntadeandalucia.es/medioambiente/site/portalweb/menuitem.6ffc7f4a4459b86a1daa5c105510e1ca/?vgnextoid=46fe5ef69d282510VgnVCM2000000624e50aRCRD&vgnnextchannel=f34be156217d4310VgnVCM2000000624e50aRCRD>
- <https://medioambiente.jcyl.es/web/jcyl/MedioAmbiente/es/Plantilla100Detalle/1284240241083/1284240241083/1284671567703/Recurso>
- <https://www.youtube.com/watch?v=Lc4-2cVKxp0>
- <https://www.sostenibilidad.com/cambio-climatico/derribando-mitos-cambio-climatico/>
- <https://www.miteco.gob.es/es/cambio-climatico/temas/que-es-el-cambio-climatico-y-como-nos-afecta/>
- <file:///D:/Users/ngorostidi/Downloads/SEMBRAR+EDUCACION+AMBIENTAL.pdf>

## 04. Eranskinak

- I Eranskina: 1. Dinamika
- II Eranskina: 2. Dinamika
- III Eranskina: 3. Dinamika
- IV Eranskina: Joko Taula
- V Eranskina: Txartelak
- VI Eranskina: Konpromezua

